



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

PLASTIKO-HONDAKINAK KUDEATZEKO ZERBITZUA EMATEKO
ADMINISTRAZIO KLAUSULA ZEHATZAK ETA BALDINTZA TEKNIKOAK

AURKIBIDEA

I. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK

- 1.- KONTRATUAREN XEDEA
- 2.- BALDINTZA TEKNIKOAK
- 3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
- 4.- LIZITAZIO-PREZIOA
- 5.- FINANTZAKETA
- 6.- ORDAINTZEKO ERA
- 7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
- 8.- BEHIN BETIKO BERMEA
- 9.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

II. Kapitulua.- KONTRATAZIOA

- 10.- ESLEITZEKO PROZEDURA
- 11.- LIZITATZAILEAK
- 12.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK
- 13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA
- 14.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA
- 15.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK
- 16.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA
- 17.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

III. Kapitulua.- KONTRATUA GAUZATZEA

- 18.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK
- 19.- DATU PERTSONALAK BABESTEA
- 20.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA
- 21.- EUSKARAREN ERABILERA
- 22.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK
- 23.- EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE PERTSONALAK
- 24.- BALIABIDE MATERIALAK
- 25.- BAIMENAK
- 26.- LANEN KONTROLA
- 27.- LANAK ONARTZEA
- 28.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK
- 29.- MANKOMUNITATEAREN PRERROGATIBAK
- 30.- KONTRATAZIO-MAHAIA

I ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA

II. ERANSKINA: ADIERAZPENAREN EREDUA

I. kapitulua. XEDAPEN OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede edo helburua Debagoieneko Mankomunitateak Garbiguneetan bildutako plastiko-hondakinak kudeatzea izango da, Agiri honetan eta kontratuaren esleipendun izango den eskaintzan zehazturiko baldintzetan.

Mankomunitateak garraiatu eta deskargatuko ditu plastikozko hondakinak esleipendunaren uzteko zentroan. Beraz, aipatu uzteko zentrorara arteko garraioa ez da kontratu honen xede.

2.- BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Kontratu honen xede diren hondakinak hainbat jatorritako plastikoak dira, Mankomunitateak gaika bilduak berak kudeatzen dituen 3 Garbiguneetan (eraikuntzako hodiak, jostailu ez elektronikoak, film erretraktila, etxeko tresnak, hedatutako poliestirenoa, etab.). Eskaintzak prestatzeko, lizitatuzaileek konprobatu ahal izango dute bertan, garbiguneetan, jasotzen diren material motak, aurretik Mankomunitateari abisatuz. Eskaintzaileentzako orientabide gisa soilik, hurrengo taulan jasotzen dira 2014-2015 urtean kudeatu diren garbiguneetako plastikoaren porteak eta kiloak:

Urtea / Año	Hilabetea / Mes
2014	Uztaila / Julio Abuztua / Agosto Iraila / Septiembre Urria / Octubre Azaroa / Noviembre Abendua / Diciembre
2015	Urtarrila / Enero

2. Ez da kontratu honetan sartzen plastikozko ontzi arinen kudeaketa, Mankomunitateak bide publikoan jarritako edukiontzi bidez edo atez ateko sistema bidez gaika bilduak, Ecoembes kudeaketa-sistema integratuaren bidez kudeatzen direnak.
3. Mankomunitateak egingo du edukiontzien bilketa garbiguneetan, eta baita plastikozko hondakinen garraioa, pisatzea eta deskarga esleipendunaren hondakinak uzteko zentroan.

4. Porteak 36 m³ko edukierako edukiontzien bitartez egingo dira, Ampliroll motako sistemarekin. Edukiontzien neurriak hauek dira: 6 m luze x 2,5 m zabal x 2,38 altu. Deskargak bolketea eginez egingo dira. Beste deskarga mota batzuk proposatu ahal izango dira, beti ere ez ba dute eskatzen Mankomunitatearen pertsonal edo baliabide material gehiago. Edozein kasutan, alor teknikoan negatiboki baloratuko dira beste deskarga mota batzuk, hauek Mankomunitatearen langileentzat denbora gehiago suposatzen badute, edo beste efektu negatiborik baldin badaukate Mankomunitatearentzat.
5. Mankomunitateak eskubidea izango du hondakin mota hau konpaktagailuen bitartez entregatu ahal izateko. Honek ez lioke suposatuko inongo aldaketa ekonomikorik ezta operatiborik kontratuan sinatutakoekiko.
6. Ematen zaizkion hondakinak ahalik eta gehien aprobetxatzeko moduan tratatu behar ditu materialak esleipendunak, baloriza daitezkeen material guztiak ateraz, errefusaren zatia minimizatzen. Berrerabiltzea hobe izango da birziklatzea baino, eta birziklatzea hobe balorizazio energetikoa baino, uneoro bete beharko delarik hondakinen kudeaketaz indarrean dagoen legeria.
7. Plastikozko hondakinen tratamenduaren ondoren sorturiko errefusa kudeatu behar du esleipendunak, baita plastikoa ez den beste edozein hondakin ere (metalak edo beste), kontratistaren kontura izanik kudeaketaren kostuak (garraioa, zabortegiko tasak edo besterik).
8. Esleipendunaren hondakinak uzteko zentroak hurrengo baldintza minimoak bete behar ditu:
 - Enpresa esleipendunaren instalazioa izatea.
 - Instalazio horretan 200139 LER kodeko hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko baimena izatea.
 - Zentro hau errepidez 45 km-ko erradio maximo baten barne kokatua egon behar du, Arrasateko Garbiguneko egoitzaetik neurtuta. Distantzia neurtuko da, proposamen ekonomikoaren atalean azaltzen den distantziak kalkulatzeko prozeduraren arabera.
 - Mankomunitateak plastikozko hondakinen deskargak egin ahal izan behar ditu goiz eta arratsaldeko ordutegian, astelehenetik ostiralera. Hondakinak onartzeko ordutegi eta egutegiaren zabalera lizitazio honen alor teknikoan baloratuko da.
9. Mankomunitateak entregatzen dizkion plastikozko hondakin guztiak onartu eta tratatu beharko ditu kontratistak, betiere inpropioen maila %5ekoa baino txikiagoa bada.
10. Kontratistak egingo du garraio-aldi bakoitzean beharrezkoa den dokumentazioaren tramitazioa (onarpen agiriak, garbigune bakoitzeko bat, jarraipen eta kontrol-agiriak, etab.) Eusko Jaurlaritzaren IKS-eem sistemaren bidez. Bai onarpen agiriak, bai jarraipen eta kontrol-agiriak, kasu guztietan tramitatuko dira 200139 LER kodearekin.

11. Mankomunitateak izendatuko du hileko fakturazioen oinarritzat erabiliko diren pisatzeak zein baskulatan egin behar diren, eta izan daiteke hondakinak entregatzeko instalazioetako baskula. Azken kasu honetan, kontratistak pisatze bakoitzarekin ticket automatikoa edo emate-agiria eman behar dio Mankomunitateko langileari. Baskulak kalibratze ziurtatuak izan behar ditu, neurketen zuzenketa ziurtatzeko. Edozein unetan baskulaz aldatzeko eskubidea izango du Mankomunitateak.
12. Fakturazioaren oinarrian dauden kopuruak justifikatu behar ditu kontratistak, eta hileroko jasotako plastikozko hondakinen datuak aurkeztu, emanaldi bakoitzeko datak, ibilgailuen matrikulak eta kopuruak (pisua) zehaztu behar dituelarik. Datu horiek bidaltzeko, Mankomunitateak formatu espezifikoak ezarriko ditu, paperean edo euskarri informatikoan, eta kontratistak hileko fakturazioarekin bete eta bidali egin behar ditu. Datuetan hutsegiteak edo akatsak aurkitzen badira, horiek zuzentzeko eskatuko du Mankomunitateak. Hileko datuei Mankomunitateak bere onespina eman arte, hileko lana ez da bukatutzat emango eta, beraz, ez da faktura ordainduko.
13. Hilero ere, aipatu jasotako plastiko hondakinen datuekin batera, kontratistak Mankomunitateetik jasotako hondakin hauen kudeaketaren ziurtagiria aurkeztu behar du, zehaztuz ze frakziotan sailkatu diren hondakinak hile horretan, ze kantitate frakzio bakoitzeko, (hobe pisatutako kantitateak, bestela estimazioak), eta frakzio bakoitzaren norakoa. Guztira, kudeatutako kantitateak bat egin behar du jasotako kantitatearekin. Ziurtagiri hau zigitatuta eta enpresako arduradun batek sinatuta egon behar da. Ziurtagiria ez bada jasotzen, edo honek ez baditu betetzen aipatu baldintzak, hileko lana ez da bukatutzat emango eta, beraz, ez da faktura ordainduko.
14. Garbiguneetan jasotzen den plastiko hondakina heterogeneoa da. Hondakin hau konposatzen duten frakzioen karakterizazio ahalik eta zehatzena interesgarria da hauen kudeaketa aukera desberdinak baloratzeko. Horrela, lizitatzailerek egin ditzaketen hobekuntza proposamenak, hondakin honen karakterizazioa erraztuko luketenak, positiboki baloratuko dira arlo teknikoan: Mankomunitatearen esku uztea esleipendunaren instalazioetan eremu bat karakterizazio lan hauek egiteko, edo beste batzuk.
15. Mankomunitatearen interesa ere da plastiko hondakinekin esleipendunak egiten duen kudeaketaren trazabilitatea. Arlo teknikoan positiboki baloratuko dira trazabilitatea hobetuko luketen egiten diren hobekuntza proposamenak.
16. Plastikozko hondakinak gaika biltzeko Mankomunitateak beste garbigune, zerbitzu edo instalazio batzuk jartzen baditu abian Debagoieneko eremu geografikoan, eta betiere ontzi arinak ez badira, zerbitzu edo instalazio horietan jasotako plastikozko hondakinak ere kudeatu beharko ditu kontratistak, kontratu honetako baldintza berberetan.

17. Baldintza-agiri honetan Mankomunitateko langileei buruz egiten diren erreferentziak modu berdinean aplikagarriak dira, hala badagokio, garbiguneetako plastikozko hondakinen edukiontzien bilketa, garraioa, pisatzea eta deskarga egiteko Mankomunitateak kontratatu dezakeen enpresaren langileei.

3.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek urtebeteko iraupena izango du izenpetzen denetik aurrera, eta bi aldeek adostasunez beste urtebetez luzatu ahal izango da.

4.- LIZITAZIO-PREZIOA

Lizitazio-prezioa honako hau izango da, BEZ kanpo: 70,00 €/tm.

Prezio horiek eskaintzaileek beherantz hobetu ditzakete beren eskaintzetan.

Aurkezturiko proposamenetan ez da bakarrik kontratuaren prezioa sartuko, baita horren ondorioz sortzen diren era guztietako zergak eta gastuak ere.

5.- FINANTZAKETA

Kontratu honen prezioa Mankomunitatearen 2015eko Aurrekontu Orokorreko 3001.227.162.30.75 kontu-sail edo partidaren zordunduz finantzatuko da. Datozen ekitaldi ekonomikoetako aurrekontuetan kontratu hau finantzatzeko beharrezko kreditua gordetzera konprometitzen da aurrekontu-gaia eskudun den organoa.

6.- ORDAINTZEKO ERA

Prestazioa adostasunez hartu ondoren, ordainketa hileroko egingo da.

Ordainketa alde aurretik kontratistak faktura zehaztua aurkeztu ondoren egingo da. Fakturaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurreko hilabetean kudeaturiko hondakinen tonen kontratua esleitzean onarturiko prezio/tona aplikatuko zaie.

Hileko lanak ez dira hartutzat emango, eta ondorioz ez dagokio hauek fakturatzeari, kontratistak aurkeztu ezean bigarren klausulako 12. eta 13. puntuetan deskribatzen diren hile horretan jasotako hondakinen datu zuzenak, eta hauen kudeaketa ziurtagiria.

Fakturak Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginaren 216. artikuluan ezartzen dituen epeen barruan ordainduko dira.

7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan ez da prezioen inolako berrikuspenik aplikatuko.

8.- BEHIN BETIKO BERMEA

Bere gain hartutako obligazioak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipenduna beharturik dago behin betiko bermea aurkeztera, 2.600 €-koa.

Errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera hamar laneguneko epea dago berme hori eratzeko, eta Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 96. artikuluan ezarritako moduetako edozeinetan egin ahal izango da.

Bermea itzultzea Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 102. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, berme-epea amaitu ondoren eta esleipendunak bere kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

9.- KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuak zerbitzuen administrazio-kontratuaren izaera izango du. Honako hauen arabera arautuko da: Administrazio Klausula Berezion Agiria; 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena; 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrean indargabetu gabeko arauak. Era osagarrian, Administrazio Zuzenbideko arau orokorrak aplikatuko dira, eta horiek ezean, Zuzenbide Pribatukoak

Kontratuaren aplikazio edo interpretazioan, berori gauzatu, aldatu, bete edo iraungitzerakoan sortzen diren auziak Mankomunitatean eskudun diren organoek ebatziko dituzte eta horien erabakiak berehala bete beharrekoak izango dira.

Erabaki horien aurka jotzeko ahalmena administrazioarekiko auzi-eskumenak izango du.

II. Kapituluak.- KONTRATAZIOA

10.- ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau esleitzea PROZEDURA IREKI bidez egingo da.

11.- LIZITATZAILEAK

Proposamenak pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, parte har dezakete, jarduteko gaitasun osoa baldin badute, kontratatzeko debekurik ez baldin badute, eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatzen badituzte.

12.- DOKUMENTAZIOA ETA PROPOSAMENAK

1. Eskaintzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Enpresa elkartuek ezingo dute banakako proposamenik aurkeztu eta, hori egiten badute, ez zaizkie onartuko ez banakakoak eta ez elkartearenak.
2. Proposamenak hiru gutun-azaletan aurkeztuko dira, barruan ondorengo agiriak sartuta:

1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- 1. gutun-azalean, hauek sartuko dira:

a) Enpresaburuaren eta, hala balegokio, bere ordezkariaren nortasun juridikoa egiaztatzen duten agiriak.

Nortasuna honela egiaztatuko da:

- Enpresaburua pertsona juridikoa baldin bada, eraketa-eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza aurkeztuta, horietan agertzen badira beren jarduera erregulatzen duten arauak, hala balegokio, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuak, zer-nolako pertsona juridikoa den kontuan izanda.

Enpresaburuak espainiarrak ez direnean baina bai Europako Erkidegoko kide diren estatuetako kideak, ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera, dagokien Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edota zinpeko adierazpena edo ziurtagiri bat aurkeztu, arauz ezarrita dagoen bezala, Europar Erkidegoan aplikatu beharreko xedapenen arabera.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek beren estatuan dagoen Espainiaren Diplomazia Misio Iraunkorrek edo enpresaren helbideari dagokion lurralde-eremuko Kontsuletzeko Bulegoak egindako txosten bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

- Eskaintzaileak bere izenean badihardu, nortasun-agiria (NAN) aurkeztu behar du edo bere estatuan dagoen baliokidea.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak izenpetzen dituztenek NANen kopia aurkeztu behar dute, baita horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa baldin bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du.

b) Kontratatzeko debekuetan sartuta ez dagoela adierazten duen aitorten erantzulea. Adierazpen horretan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak beteta dituen adierazpena sartuko da.

Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzeko agiriak behin betiko esleipena egin baino lehen aurkeztu behar ditu esleipena jasoko duen enpresaburuak.

c) Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren egiaztagiriak.

Ekonomia- eta finantza-kaudimenaren justifikazioa Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 75. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainetarako 300.000 €-ko edo zenbateko handiagoko aseguru bat badagoela justifikatzen duen agiria.

d) Kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatze bitartekoak.

Kaudimen tekniko eta profesionalaren justifikazioa Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 78. artikuluan ezartzen duenaren arabera egingo da, ondorengo agiriak aurkeztuz:

- Kontratuaren xedearen antzeko ezaugarriak izanik, azken hiru urteetan egindako zerbitzu garrantzitsuenen zerrenda, hor sartuta lan horien zenbatekoa, datak eta onuradun publiko eta pribatuak. Egindako zerbitzu edo lanak organo eskudunak egindako edo ontzat emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, edo hartzailea subjektu pribatu bat denean, berak egindako ziurtagiri bidez edota, ziurtagiri hori ezear, enpresaburuaren aitortzen bidez.
- Hondakin ez arriskutsuen kudeatzaile izateko enpresak Eusko Jaurlaritzaren baimena duela egiaztatzen duen dokumentazioa, hurrengo hondakinentzat: plastikoa. Bereziki, 200139 LER kodeko hondakinak kudeatzeko baimendua egon behar du lizitatuak proposaturiko hondakinak uzteko zentroan.

Baimen hori aurkezten ez duten enpresen eskaintzak baztertu egingo dira.

e) Kontratuaren inguruan zuzenean edo zeharka sor litekeen edozein gorabeheratarako, atzerriko enpresek aitortzen bat aurkeztu behar dute Espainian edozein mailatako auzitegi eta epaitegien eskumenean jartzen direla adieraziz, eta, hala balegokio, eskaintzaileak atzerrian izan lezakeen foru jurisdikzionalari uko egin diola adieraziz.

f) Hala balegokio, posta elektronikoaren helbidea jakinarazpenak egiteko.

2.- Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratu eta Kontratisten Erregistroen Erregelamendua onartzeko otsailaren 3an eman zen 12/1998 Dekretuak arauturiko Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribaturik dauden enkante-eskaintzaileak, a) eta b) ataletan eskaturiko agirien ordez, Erregistroaren organo arduradunak egin eta indarrean dagoen ziurtagiria aurkez dezakete, eta horrekin batera eskaintzailearen aitortzen arduratsua adieraziz ziurtagiri horretan aipatzen diren zirkunstantziak ez dutela aldaketarik izan.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira edo behar bezala egiaztatutako kopiak.

1. GUTUN AZALEKO dokumentazio hau hasieran aurkeztu ordez lizitatuak erantzukizunezko aitortza aurkeztu dezake, II. Eranskineko ereduaren arabera. adieraziz proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean Administrazioarekin kontratu bat izenpetzeko lege ezartzen diren baldintzak betetzen dituela. Kasu horretan, lizitatuak, esleipen proposamena berari egokituz gero, kontratua eskuratu aurretik kontratazio organoaren aurrean egiaztatzea behar du eskatzen diren dokumentuak badituela eta baliodunak direla.

2. GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOAK

2. gutun-azalean ondorengo dokumentazio teknikoak sartu behar da:

Hondakinak uzteko proposatzen den zentroa. Helbidea eta kokapen planoak.

Hondakinak uzteko proposatzen den zentroa. Ezaugarri teknikoak. Instalakuntzen plano orokorra. Deskargak egiteko ordutegi eta egutegia. Mankomunitateko ibilgailuak sartu eta deskargak egiteko eremua. Aurre-tratamendu, biltze eta prestatutako materialen espediziorako eremuak. Hondakinen aurre-tratamendua egiteko makineriaren ezaugarri teknikoak. Hala badagokio, baskularen ezaugarri teknikoak eta honen kalibrazioaren ziurtagiria. Hala badagokio, Mankomunitatearen plastiko hondakinen karakterizazioerako eremuaren ezaugarriak: kokapena, dimentsioak, etab.

Proposatzen diren tratamendu edo tratamenduak. Kontratuaren xede diren plastikoak zein frakzioetan sailkatuko dira. Frakzio bakoitzaren aurre-tratamendua (txikitzea, trinkotzea, enfardatzea, etab.), prozesuen behar diren zehaztapen teknikoekin. Frakzio bakoitzeko proposatzen den norakoa, zehaztuz ze enpresa, entitate edo instalakuntzetara aurreikusten den bidaltzea frakzio bakoitza, eta ze helburuarekin: berrerabilpena, birziklapena (lehengai bezala erabiltzea), balorizazio energetikoa (erregai bezala erabili), edo ezabapena (energia berreskuratu gabeko inzerazioa edo zabortearen ezabapena). Zehaztu behar da ze portzentajetan aurreikusten den ematea kontratuaren xede diren hondakinei ezabapena ez den beste norakoak (berrerabilpena, birziklapena edo balorizazio energetikoa). Hala badagokio, zehaztu ahal izango dira hobekuntza proposamenak Mankomunitateari kontratuaren xede diren hondakinen proposatzen den kudeaketaren trazabilitatea bermatzeko, edo beste onura proposamen batzuk, Mankomunitateko plastiko hondakinak hobeto karakterizatzeko eragina izan dezaketenak.

3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOAK

Baldintza Agiri honen ERANSKIN gisa agertzen den ereduari zorroztz atxiki behar zaio proposamen ekonomikoa, eta bertan lizitatuak eskaintako prezioa sartuko da.

Agiri honetan kontsignaturiko prezioetan lanak kontratatu eta gauzatzeko eragindako edo eragingo dituen gastu guztiek egon behar dute sartuta eta, zehatzago esanda, ondorengo hauek:

- Lizitazio-gastuak eta, hala badagokio, kontratuaren formalizazio-gastuak.

- Kontrataturiko prestazioa betetzeko esleipendunak zertu beharreko gastuak: oniritzi edo bisatuak, gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruak, tasak, fidantzak, saiakuntzak, garraio eta bidaiak, bere ardurapeko langileen lansari eta dietak eta Baldintza Agiri honetan ezarritako beste guztiak.

- Era guztietako zergak, BEZ barne, eta kontratuak iraun bitartean ezartzen edota aldatzen diren beste guztiak.

Kontzeptu horietako batere ezingo da gero aparteko kontzeptu edo kontu-sail gisa sartu.

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Aipatu diren gutun-azal horiek Debagoieneko Mankomunitatearen Sarrerako Erregistro Orokorrean —Nafarroa Etorbidea, 17 Arrasaten— aurkeztu behar dira, 15 egun naturaleko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio-iragarkia argitaratu eta biharamunetik zenbatuta.

Enkante-eskaintzaileak bere proposamena postaz bidaltzen badu, Postetxean bidalketa egin duen eguna justifikatu behar du eta egun berean eskaintza bidali duela jakinarazi Kontratazio Organoari telex, telefax edo telegrama bidez. Bi baldintza horiek ez badira betetzen edo bidalketaren jakinarazpena proposamenak jasotzeko epea igaro eta gero hartzen bada, eskaintza ez da onartuko. Bestalde, aipaturiko dataren ondoren hamar egun natural igaro eta proposamena ez bada iristen, ez da inola ere onartuko.

2.- Gutun-azalak itxita, eta behar bezala izenpetuta, aurkeztuko dira; gainean lehian parte hartzen duen enpresaren (edo enpresen) izena eta idazkun hau izango dute: **“Plastiko-hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko proposamena”**.

Gutun-azal bakoitzean, gainera, edukia adieraziko da, honela:

- 1. GUTUN-AZALA: NORTASUNA, GAITASUNA ETA KAUDIMENA**
- 2. GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA**
- 3. GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

14.- DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, garaiz eta behar bezalako forman iritsitako dokumentazioa (1. gutun-azala) kalifikatuko du Kontratazio Mahaiak, horretarako Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorraren 81. artikuluan ezarrita dagoen bezala jokatu.

Horretarako, azalpenak edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira lizitatzailen gaitasun eta kaudimenari buruz, eta horiek, Erregelamenduko 22. artikulua zedatzen duen bezala, bost egun naturaleko epean aurkeztu behar dira. Azalpen edo agiri osagarrien eskaera Mahaiak hitzez jakinaraziko die interesatuei, eta Mankomunitateko iragarki-taulan eta kontratatzailearen profilean ere iragarriko da. Era berean jakinaraziko du Mahaiak aurkezturiko dokumentazioan zuzentzeko egon litezkeen akatsak, kasu honetan hiru laneguneko epean eskaintzaileek zuzendu ditzaten aurkituriko akatsak.

Kontratazio Mahaiak, aurkezturiko dokumentazioa kalifikatu eta, hala balegokio, aurkituriko akatsak edo omisioak zuzendu ondoren, Baldintza Agiri honetan ezarritako aukeratze-irizpideetara egokitzen diren enpresak zehazteari ekingo dio, argi eta garbi erabakiz zein diren enkantean onartuak, zein baztertuak eta baztertze horretarako kausak.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo bosgarren lanegunean, eta egun hori larunbatean suertatzen bada, hurrengo astelehenean —salbu eskaintzailearen batek bere eskaintza postaz bidali duenean, kasu honetan Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrek 80. artikuluan ezartzen duen epea bukatu ondorengo lehen lanegunean egingo baita— goizeko hamarretan irekiko da 2. gutun-azala, eta Kontratazio Mahaiari emango zaio balora dezan bertan dagoen dokumentazioa. Irekitze-ekitaldia jendaurrean egingo da, Debagoieneko Mankomunitatearen gela batean.

3. gutun-azala (proposamen ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da Mankomunitate honen kontratatzailearen profilean (www.debagoiena.eus) eta onarturiko enpresa eskaintzaileei bidaliko zaien jakinarazpenean adieraziko den lekuan, egunean eta orduan. Ekitaldi honetan balio-judizio baten mendeko irizpideei esleituriko balorazioaren berri emango da

15.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

1. Kontratuaren esleipena ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari egingo zaio.
2. Kontuan izan beharreko irizpideak eta kontratuaren esleipenerako horien ponderazioa honako hauek izango dira:
 1. Proposamen ekonomikoa: %80
 2. Dokumentazio Teknikoa: %20

<p>1.- Proposamen ekonomikoa</p> <p>Onarturiko proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua formula honen arabera egingo da:</p> <p>Puntuaketa = 0,95 X + 1,88 Y</p> <p>Non:</p>	<p>80 puntu</p>
--	------------------------

<p>X = Hondakinak entregatu behar den puntutik, Arrasateko Garbigunera (erreferentziako garbigunea) dagoen distantzia.</p> <p>Distantzia hau kalkulatzeko, distantzian ibilbide motzena aukeratuko da, errepideak duten mailaren arabera aukeratuz (handitik txikira), eta bidesaridun autoestratak erabili gabe. Era berean ez dira erabiliko kalkuluan mendiko pistak, ezta sare lokala (GFAko Sare horia*) baino maila baxuagoa duten errepideak, ez badira beharrezkoak hauen azken metroak erabiltzea entrega puntura heltzeko. Hala ere Mankomunitateko kamioiak entrega puntura heltzerik izango ez balu, ez da onartuko proposamena.</p> <p>Y = Plastikoa kudeatzearen eskaintako prezioa.</p> <p>0,95 Faktorea = Garraioaren kostuarekin erlacionatutako faktorea (€/Km).</p> <p>1,88 Faktorea = Plastikoa bidai bakoitzaren pisua batzbesteko (T).</p> <p>Puntuen banaketa ondorengo puntuaren interpolazio linealaz egingo da, kontuan izanik:</p> <p>P1.- Formularen emaitzarik baxuenak (eskaintzarik merkeena): 100 puntu.</p> <p>P2.- Formularen emaitzarik altuenak (eskaintzarik garestiena): 0 puntu.</p> <p>* Ikusi esteka: http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DWIBideAzpiegiturakWEB/catalogoCarreteras.do?cargar=1&js=S</p> <p>** Kontratoak irauten duen bitartean soilik ahal izango da entrega puntua aldatzea formularen lortutako lehen zatiko emaitza (0,95 X) lizitazio prozesuan lortutakoa baino baxuagoa balitz, betiere, kontratuaren gainontzeko baldintzak betetzen badira.</p>	
<p>2.- Dokumentazio teknikoa</p> <p>Hauek balioetsiko dira:</p> <p>Hondakinak uzteko zentroaren ezaugarri teknikoak. Deskargak egiteko ordutegi eta egutegia. Mankomunitateko kamioiak sartu eta deskargak egin ahal izateko egokitasuna. Hondakin hauen sailkapena eta aurre-tratamendua egiteko makineria. Hala badagokio, baskula egotea instalakuntzetan eta honen kalibrazio egoera. 10 puntu.</p> <p>Plastiko hondakinentzat proposaturiko tratamendua. Plastikoa hondakinak zer frakziotan sailkatuko diren. Aurre-tratamendu prozesuak. Frakzio bakoitzarentzat aurreikusten den norakoa. Berrerabilpen, birziklapen, balorizazio energetiko eta ezabapenerako aurreikusten diren portzentajeak. Hondakin hauen karakterizazioarako hobekuntzak, eta hauen kudeaketaren trazabilitatea bermatzeko hobekuntzak. Hala badagokio, Mankomunitateko plastikoa karakterizatzeko eremuaren ezaugarriak: 10 puntu.</p>	<p>20 puntu</p>

16.- ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

Kontratazio-organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, beheranzko ordenan sailkatuko ditu aurkezturiko proposamenak, proportzio gabetzat edo anormaltzat jo gabeak, Baldintza Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera.

Ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileari hamar laneguneko epean honako hauek aurkezteko eskatuko dio Kontratazio-organoak: zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen egunean dagoela frogatzeko egiaztagiriak, kontratua betetzeko erabiltzera edo esleitzera konprometituriko baliabideak benetan badituela erakusten duten agiriak, lan-arriskuen prebentzioari buruzko dokumentazioa, eta behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen egiaztagiria.

Dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan esleituko du kontratua kontratazio-organoak.

17.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Mankomunitateko organo eskudunak behin betiko esleipena egin eta hori jakinarazi ondoren, kontratua administrazio-dokumentuan formalizatu behar du esleipendunak gehienez ere hamabost laneguneko epean, behin-betiko esleipenaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatuta, eta agiri hori aski titulu izango da edozein erregistro publikotara iristeko. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publiko bihurtzea, dagozkion gastuak bere kargura izango direlarik.

Kontratistari egozteko moduko kausengatik kontratua ez bada formalizatzen aipaturiko epearen barruan, Mankomunitateak indargabetzea erabaki dezake, baita behin betiko bermea konfiskatzea ere.

Kontratua formalizatzeko ekitaldi berean eta hori izenpetzeaz gain, esleipendunak Administrazio Klausula Partikularrak eta Baldintza Teknikoak ere izenpetuko ditu, horrela agertuz baduela horien berri eta ados dagoela.

Kontratua formalizatzea ezin saihestuzko baldintza izango da edozein ordainketa bideratzeko.

III. Kapituluak.- KONTRATUA GAUZATZEA

18.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

1. Kontratu hau betetzea kontratistaren arrisku eta benturara egingo da.
2. Baldintza Agiri honi, aplikatu beharreko araudiari eta kontraturiko lanak bezalakoei dagozkien arau teknikoei estu eta zorrotz jarraituz egin behar dira lanak.

3. Esleipenduna berak egiten dituen lanen eta prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da, baita kontratua betetzerakoan egiten dituen ez-egite edo omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioarentzat edo hirugarrengozat dituzten ondorioen erantzule ere. Kontratatistak berari egotz dakizkiokeen jardunengatik hirugarrengoei eragindako kalteen ordainak emango ditu.
4. Kontratu honen xede diren hondakinen kudeaketa eta garraiorako European, estatuan eta EAEn une bakoitzean indarrean dauden araudi guztiak bete beharko ditu kontratatistak.
5. Lan, Gizarte Segurantzza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloetan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu kontratatistak.

19.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratua betetzeko tratamendu automatizatua duten datu pertsonalak erabili behar baditu enpresa esleipendunak, hori abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (datu pertsonalen babesari buruzkoak) ezarritakoa betez egingo da.

Kontratuari esker lortu dituen datu pertsonal automatizatuak Mankomunitateak agindutakoaren arabera tratatuko ditu enpresa esleipendunak, eta ezingo ditu aplikatu edo erabili kontratuan agertzen den helbururako baizik, ezta laga ere beste pertsona batzuei, nahiz eta gordetzeko izan.

Behin kontratu-prestazioa bete ondoren, trataturiko datu pertsonalak Mankomunitateari itzuli behar zaizkio, baita izaera pertsonaleko daturen bat daukaten euskarri edo agiri guztiak ere.

Enpresa esleipendunak, kontratuaren xedapenak bete gabe, beste helburu baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, horien tratamenduaren erantzuletzat joko da, eta horrela berak erantzun beharko du egin dituen lege-hausteei buruz.

20.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratuaren xede den zerbitzu-ematearen eremuan segurtasun eta osasunaren erantzulea kontratista denez, aplikatzekoak diren arau juridikoak eta teknikoak bete beharko ditu.

Debagoieneko Mankomunitateak eskubidea izango du prebentzio-arloan egokia iruditzen zaion dokumentazioa eskatzeko kontratuak irauten duen bitartean.

21.- EUSKARAREN ERABILERA

Dokumentazio idatzia gutxienez euskaraz aurkeztu behar du enpresa esleipendunak.

Euskarazko testuaren kalitatea: Euskarazko testuak argia eta ulergarria izan behar du. Horretarako, eta behar izanez gero, esleipendunak Mankomunitatearen laguntza eta argibideak izango ditu.

22.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENGOEI EGINDAKO KALTEENGATIK

Kontratista izango da kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz eragiten diren kalteen erantzule, Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 214. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

23.- EKIPAMENDUA ETA BALIABIDE PERTSONALAK

Kontratatistak tresneria eta baliabide pertsonal egokiekkin egin beharko ditu lanak, une oro erantzunez lan horien martxan sortzen diren premiei.

24.- BALIABIDE MATERIALAK

Kontratatistak bere proposamenean sartutako baliabide tekniko guztiak jarri behar ditu eta, oro har, lanak ongi gauzatzeko behar diren guztiak.

25.- BAIMENAK

Kontratatistak bere kontura eta erantzukizunpean lortu behar ditu lanak behar bezala egiteko beharrezko baimen eta lizentzia guztiak, bere kargura izanik erakunde eskudunek jartzen dizkieten baldintza eta aginduak betetzea. Baimen, lizentzia edo oniritzi horiengatik tasak, fidantzak edo beste gastu batzuk eskatzen direnean, horien ordainketa edo gordailua ere kontratatistaren kargura izango da.

26.- LANEN KONTROLA

Lanak Debagoieneko Mankomunitatearen kontrolpean egingo dira. Mankomunitateak aginduak eman ahal izango dizkio kontratatistari, ez baldin badute kontrataturiko prestazioen aldaketa suposatzen betiere.

27.- LANAK ONARTZEA

1.- Kontrataturiko lanak entregatu eta horietan akatsik ez bada aurkitzen, Administrazioak ofizioz horien onarpena egingo du.

2.- Entregaturiko lanek ez badituzte onartzeko behar diren baldintzak betetzen, dagozkion aginduak emango zaizkio kontratistari aurkitutako akatsak zuzen ditzan eta horretarako ezarritako epean bere obligazioak bete ditzan, eta agindu horiek bete arte ez zaizkio lanak onartuko. Emandako epean ez baditu aginduak betetzen, kontratua deuseztatu egingo da eta fidantza galduko du.

28.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratu hau suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratu Legearen testu bateginak 223 eta 308. artikuluetan ezarritakoak.

29.- MANKOMUNITATEAREN PRERROGATIBAK

Kontratua interpretatzeko, hau betetzearen inguruan sortzen diren zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, suntsiaraztea erabakitzeko eta horren ondorioak finkatzeko prerrogatibak ditu Mankomunitateak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ezartzen dituen mugen barruan eta betebeharrak eta ondorioen arabera.

Horretaz hartzen diren erabakiek administrazio-bidea bukaraziko dute, eta berehala betebeharrekoak izango dira.

30.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia osatuko dutenak hauek izango dira:

Lehendakaria:

- Mankomunitateko lehendakaria.

Kideak:

- Ingurumen Batzordeko lehendakaria.
- Ingurumen Zerbitzuko Arduradun Teknikoa.
- Mankomunitateko behin behineko kontu-hartzailea.
- Mankomunitateko behin behineko idazkaria.

Idazkaria

- Mankomunitateko behin behineko idazkaria.

I ERANSKINA: PROPOSAMEN-EREDUA

..... jaunak/andreak (adinez
nagusia,(e)n bizi dena eta NAN-zka.
duena)(r)en izenean eta ordezkari (honek egoitza
soziala(e)n eta CIF-IFK-zka. duelarik)
zera

AZALTZEN DU:

Lehena. Ezagutzen dituela plastikozko hondakinak kudeatzeko zerbitzua emateko Administrazio Klausula Partikularrak eta Baldintza Teknikoak.

Bigarrena. Bere erantzukizunpean adierazten duela enkantean hartzeko eskaintza egiten duen enpresa ez dagoela, indarrean dagoen legeriaren arabera, Administrazioarekin kontratuak egiteko debeku-kasuetan sartuta, behar hainbat gaitasun juridiko eta bitarteko badituela aipaturiko lanak egiteko eta betetzen dituela kontratu honetarako eskatzen diren baldintza espezifikoak.

Hirugarrena. Esleipendun gertatuz gero, onarturiko Agiriko baldintza eta betebeharrei zorrotz jarraituz egingo dituela lanak.

Laugarrena. Aipaturiko zerbitzua prezio honetan ematera konprometitzen dela:

- €/tona, gehi€, BEZaren %.....-i dagokiona.

(Data eta sinadura)

II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, helbidea
..... eta NAN zk., erabateko
gaitasun juridikoa eta jardutekoa duelarik, bere izenean (edo
..... ordezkatuz, helbidea eta IFK
.....), Debagoieneko Mankomunitateak PLASTIKO HONDAKINAK
KUDEATZEKO ZERBITZUA kontratatzeko prozeduraren jakitun.

ADIERAZTEN DUT

Enpresa lizitatuak Administrazioarekin kontratatzeko lege ezarritako baldintzak betetzen dituela eta, esleitzeko proposamena bere alde ateraz gero, konpromisoa hartzen du kontratazio organoaren aurrean egiaztatze, kontratua esleitu baino lehen, Plegu honetako 1. gutun azaleko 12. baldintzan exijitzen diren agiriak dituela eta baliodunak direla, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 146.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

..... (e)n, 20..(e)koaren ...a.

Sinadura

EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko gobernu juntak onartu zuen 2015eko uztailaren 16an egindako bilkuran.

**Arrasaten, 2015eko uztailaren 17an.
IDAZKARIA**